



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko urriaren 6a

112. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-25/CCOI-00020. “Nafarroako Arartekoaren urteko kontuak, 2024” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-25/CCOI-00020. “Nafarroako Arartekoaren urteko kontuak, 2024” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Nafarroako Arartekoaren urteko kontuak, 2024” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

AURKIBIDEA*Orrialdea*

I. SARRERA	4
II. HELBURUAK ETA IRISMENA	4
III. IRITZIA.....	5
III.1 Auditoretza finantzarioko iritzia	5
III.2 Legedi-betetzeari buruzko iritzia	5
IV. IRITZIAREN OINARRIA	5
V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK	5
VI. ARARTEKOAREN ERANTZUKIZUNA	5
VII. KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA	6
1. GEHIGARRIA. ARARTEKOAREN 2024KO URTEKO KONTUEN LABURPENA	7
1.1 2024ko aurrekontuaren likidazioa	7
1.2 2024ko aurrekontu-emaizta.....	7
1.3 Diruzaintza-gerakina, 2024ko abenduaren 31n	8
1.4 2024ko abenduaren 31ko balantzea	8
1.5 2024ko ekonomia- eta ondare-emaiztaren kontua.....	9
1.6 Ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria, 2024	10
1.7 2024ko diru-fluxuen egoera-orria	10
2. GEHIGARRIA. NAFARROAKO ARARTEKOA	11
3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA.....	11
4. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK	12
4.1 Egindako jarduna	12
4.2 Aurrekontu-likidazioa.....	12
4.3 Langileria-gastuak	13
4.4. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	14
4.5. Kontratazioa	14
4.6 Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak	15
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK	16
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMATEN DIEN ERANTZUNA	19

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, berari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2025erako bere jarduketa-programari jarraituz, Nafarroako Arartekoaren 2024ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu.

Landa-lana 2025eko ekainean egin du lantalde batek, zeina osatu baitute auditoriako teknikari batek eta auditore batek. Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzaren izan dute.

Lan honen emaitzak Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari jakinarazi zitzaizkion, alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Epea iraganda, Arartekoak alegazio bat aurkeztu du. Hura aztertu ondoren, txostenean jaso da, Ganbera honen erantzunarekin bat, eta, horrenbestez, txostena behin betikotzat sailkatzen da.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Arartekoaren langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Txosten honetako datu guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Eman dako datuek eta ehunekoek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez biribildutako datuen batura.

II. HELBURUAK ETA IRISMENA

Arartekoaren 2024ko ekitaldiko urteko kontuez egin dugu finantzen eta legezkotasun-betetzearen fiskalizazioa, honakoei buruzko iritzia adierazte aldera:

- Ea 2024ko ekitaldiko urteko kontuek, alderdi muntadun guztietan, irudi zehatza erakusten duten Arartekoaren 2024ko abenduaren 31ko ondareaz eta finantza-egoeraz, bai eta data horretan amaitutako urte-ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontuak ere, aplikatzekoa den informazio finantzarioari buruzko arau-esparruari jarraituz eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideei.

- Ea Nafarroako Arartekoaren 2024ko ekitaldiari buruzko urteko kontuetan jasotako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat ote datozen, alderdi muntadun guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

Lanaren norainokoa Arartekoaren 2024ko urteko kontuak dira, zeinek kontabilitateko egoera-orri hauek barne hartzen baitituzte:

- Aurrekontu-likidazioaren egoera-orria.
- Balantzea.
- Emaitza ekonomikoari eta ondarearen arloko emaitzari buruzko kontua.
- Ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria.
- Eskudiru-fluxuen egoera-orria.
- Oroitidazkia.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoak 2024ko ekitaldia hartzen du, baina beste ekitaldi batzuei buruz ere egin dira egin beharreko egiaztapenak, hobeki lortzearren ezarritako helburuak.

III. IRITZIA

Nafarroako Kontuen Ganberak, 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak erabiliz, Arartekoaren urteko kontuak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatzen dituzte kontu horiek: 2024ko abenduaren 31ko balantzeak, emaitza ekonomiko eta ondarezkoaren kontuak, ondare garbian izandako aldaketen egoera-orriak, eskudiru-fluxuen egoera-orriak, aurrekontuko likidazioaren egoera-orriak eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion memoriak. Orobat egin du legedi-betetzeari buruzko fiskalizazioa Artekoaren 2024ko ekitaldiari buruz.

III.1 AUDITORETZA FINANTZARIOKO IRITZIA

Gure iritziz, 2024ko ekitaldiko urteko kontuek irudi zehatza erakusten dute, alderdi aipagarri guztietan, Arartekoak 2024ko abenduaren 31n zuen ondareari eta finantza-egoerari buruz, bai eta data horretan amaitutako urte-ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei buruz ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoaren arau-esparruari jarraituz eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideei jarraituz.

III.2 LEGEDI-BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Arartekoaren 2024ko ekitaldiko jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta urteko kontuetan jasotako informazioa bat datoz, alderdi muntadun guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

IV. IRITZIAREN OINARRIA

Kanpo-kontrolako erakunde publikoen funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa; zehazki, finantza-fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 200 arauan eta legedi-betetzearen fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 400 arauan ezarritakoaren arabera. Halaber, kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio-gida praktikoak (GPF-OCEX) erabili ditugu. Aurrerago deskribatzen dira arau horien indarrez ditugun erantzukizunak, gure txosteneko "Kontuen Ganberaren erantzukizunak" atalean, urteko kontuez eta legedia betetzeari buruzko fiskalizazioaz denaz bezainbatean.

Entitatearekiko independenteak gara, urteko kontuez eta legedi-betetzeaz egin dugun fiskalizazioari aplikatzekoak zaizkion etika-eskakizunekin eta independentzia-babesaren arlokoekin bat, fiskalizazio publikoko jardueraren gaineko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia ematen dio finantzei eta legedi-betetzeari buruzko gure iritzia.

V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK

Auditoretzako gai giltzarri dira gure iritzi profesionalaren arabera esanahi handiena izan dutenak 2024ko urteko kontuei buruz egin dugun fiskalizazioan. Auzi horiek urteko kontuen osotasunari buruzko gure auditoretzaren testuinguruan eta urteko kontuei buruzko gure iritzia taxutzean jorratu ditugu, eta ez dugu bereiz azaltzen horien gaineko iritzirik.

Ondorioztatu dugu ez dagoela gure fiskalizazioan jakinarazi beharreko gai giltzarriak.

VI. ARARTEKOAREN ERANTZUKIZUNA

Arartekoaren erantzukizuna da urteko kontuak egitea, zeinak Nafarroako Parlamentuari igorriko baitizkio kontu-hartzaileak horiek halako moldez prestatu ondoren non Arartekoaren aurrekontu-likidazioaren, ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidela emanen baitute, informazio finantzarioari buruz aplikatzekoa den araudia beterik.

Halaber, bermatu beharko du aipatutako kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin.

VII. KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Helburutzat dugu taxuzko ziurtasun bat lortzea urteko kontuen multzoan iruzur edo errorearen ondoriozko akats materialik ez egoteaz, eta kontu horietan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa araudi indardunarekin bat etortzeaz, erregulartasunaren fiskalizaziorako gure txostena eman ahal izateko, gure iritzia jasotzen duena.

Arrazoizko ziurtasun hori ziurtasun handia da, baina ez du bermatzen kanpo-kontrolako organoei buruzko araudiari jarraituz egindako fiskalizazio batek beti atzemanen duenik errore material bat edo urraketa muntadun bat, halakorik dagoenean. Okerrak iruzurraren edo akatsen ondoriozkoak izan daitezke, bai eta legezkotasuna ez betetzearen ondoriozkoak ere, eta materialtzat hartzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta, eta, betiere, arrazoiz aurreikus badaiteke txostenen erabiltzaileen erabaki ekonomikoetan eragina izanen dutela.

Kanpoko kontrol-organismoak arautzen dituen araudiaren arabeko fiskalizazio baten zati gisa, gure iritzi profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionaleko jarrera mantentzen dugu auditoretza osoan. Halaber:

- Identifikatu eta baloratu egiten ditugu iruzur edo oker baten ondoriozko akats materiala egotearen eta legeak ez betetzearen arriskuak, arrisku horiei erantzuteko auditoretza prozedurak taxutzen eta aplikatzen ditugu, eta behar adinako eta behar bezalako auditoretza-ebidentzia lortzen dugu gure iritziri oinarri emateko. Iruzurraren ondoriozko akats material edo ez-betetze bat ez atzemateko arriskua handiagoa da errorearen ondoriozko akats material baten kasuan baino; izan ere, iruzurra dagoenean, tartean izan daitezke kolusioa, faltsutzea, nahitako omisioak, propio egitako adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.
- Barne-kontrola dela-eta fiskalizaziorako muntazkoa den ezagutza lortzen dugu inguruabarren arabera egoki diren auditoretza-prozedurak taxutze aldera, eta ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzirik emate aldera.
- Ebaluatzen dugu ea aplikaturiko kontabilitate-politikak egoki diren, eta arrazoizkoak ote diren kontabilitate-estimazioak nahiz kudeatze-organismoak emandako informazioa.
- Urteko kontuen aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, emandako informazioa barne, eta ea urteko kontuek zehatz irudikatzen dituzten transakzioak eta azpian dauden egitateak.

Erakundearen gobernu-organismoarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, planifikatutako auditoria-proben norainokoaz eta horiek egiteko uneaz aritzeko, bai eta fiskalizazioaren aurkikuntza esanguratsuez eta fiskalizazioan zehar barne-kontrolari buruz identifikatzen dugun edozein akats adierazgarri ere.

Javier Marticorena Chapa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta jaulkitzen da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2025eko uztailaren 3an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

1. GEHIGARRIA. ARARTEKOAREN 2024KO URTEKO KONTUEN LABURPENEA**1.1 2024KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA****Diru-sarrerak kapituluz kapitulu**

Kapitulua	Hasierako aurreikuspenak	Behin betiko aurreikuspenak	Eskubide aitortuak	Betetzearen ehunekoa	Kobrantzak	Kobranten ehunekoa
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	20	20	-	-	-	-
4. Transferentzia arruntak	1.068.060	1.068.060	1.068.060	100	1.068.060	100
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	20	20	-	-	-	-
7. Kapital-transferentziak	50.240	50.240	50.240	100	50.240	100
8. Finantza-aktiboak	40	40	-	-	-	-
9. Finantza-pasiboak	20	20	-	-	-	-
Guztira	1.118.400	1.118.400	1.118.300	100	1.118.300	100

Gastuak, kapituluz kapitulu

Kapitulua	Hasierako kredituak	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebeharrak	Betetzearen ehunekoa	Ordainketak	Ordainketen ehunekoa
1. Langileria-gastuak	787.700	787.700	720.450	91	720.450	100
2. Ond. ar. eta zerb. gastuak	240.400	164.529	164.529	100	163.108	99
4. Transferentzia arruntak	40.000	40.000	37.275	93	37.275	100
6. Inbertsio errealak	50.000	50.000	49.959	100	49.959	100
8. Finantza-aktiboak	200	200	-	-	-	-
9. Finantza-pasiboak	100	100	-	-	-	-
Guztira	1.118.400	1.042.529	972.213	96	970.792	100

1.2 2024KO AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptuak	2023				2024			
	Aitortu-riko eskubide garbiak	Aitortu-tako betebeharrak garbiak	Doikuntzak	Aurrekontu-emaizta	Aitortu-riko eskubide garbiak	Aitortu-tako betebeharrak garbiak	Doikuntzak	Aurrekontu-emaizta
a. Eragiketa arruntak	1.033.560	925.831		107.729	1.068.060	922.254		145.806
b. Kapital-eragiketak	40.240	25.443		14.798	50.240	49.959		281
c. Merkataritza-eragiketak	-	-		-	-	-		-
1. Eragiketa ez-finantzarioak, guztira (a+b+c)	1.073.800	951.274		122.526	1.118.300	972.213		146.087
d. Finantza-aktiboak	-	-		-	-	-		-
e. Pasibo finantzarioak	-	-		-	-	-		-
2. Finantza-eragiketak, guztira (d+e)	-	-		-	-	-		-
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaizta (I=1+2)	1.073.800	951.274		122.526	1.118.300	972.213		146.087
Doikuntzak								
3. Gastutako kredituak, atxiki gabeko diruzaintzako gerakinarekin finantzatuak			-				-	
4. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze negatiboak			-				-	
5. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze positiboak			-				-	
II. Doikuntzak, guztira (II=3+4+5)			-				-	
Aurrekontu-emaizta doitua (I+II)				122.526				146.087

1.3 DIRUZAINZTA-GERAKINA, 2024KO ABENDUAREN 31N

Kontzeptua	2023ko ekitaldia	2024ko ekitaldia	
1. (+) Funts likidoak	180.720		208.879
2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak	-		-
(+) Ekitaldiko aurrekontukoak	-	-	
(+) Aurrekontu itxietakoak	-	-	
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetak	-	-	
(+) Merkataritza-eragiketetak	-	-	
3. (-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	180.720		208.879
(+) Ekitaldiko aurrekontukoak	4.422	1.421	
(+) Itxitako aurrekontuetakoak	-	-	
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetak	176.297*	207.458*	
(+) Merkataritza-eragiketetak	-	-	
4. (+) Aplikatzeko dauden partidak	-		-
(+) Eginiko kobrantzak, behin betikoz aplikatzeko daudenak	-		-
(+) Eginiko ordaintzak, behin betikoz aplikatzeko daudenak	-		-
I. Diruzaintzako gerakina, guztira (1+2-3+4)	-		-
II. Finantzaketa atxikiaren gaindikina	-		-
III. Saldo kobragaitzak	-		-
IV. Atxiki gabeko diruzaintzako gerakina =(I-II-III)	-		-

* Barnean hartzen ditu Nafarroako Foru Ogasunari itzuli beharreko funtsak.

1.4 2024KO ABENDUAREN 31KO BALANTZEA

(Emitza aplikatu ondoren)

Aktiboa	2023	2024
A) Aktibo ez-arrunta	1.764.968	1.786.223
I. Ibilgetu ukiezina	10.351	40.176
3. Aplikazio informatikoak	10.351	40.176
II. Ibilgetu materiala	1.754.616	1.746.047
1. Lursailak	1.356.606	1.356.606
2. Eraikuntzak	279.703	268.041
4. Ondare historikoko ondasunak	42.257	42.257
5. Bestelako ibilgetu materiala	76.050	79.142
Makinak, instalazioak eta tresnak	8.339	7.386
Altzariak eta tresneria	12.495	12.724
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak	23.462	25.927
Bestelako ibilgetu materiala	31.755	33.105
B) Aktibo arrunta	180.720	208.879
VII. Dirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk	180.720	208.879
2. Diruzaintza	180.720	208.879
Kutxa	209,89	283
Bankuak eta kreditu-erakundeak	180.510	208.596
Aktiboa, guztira	1.945.687	1.995.102

Ondare garbia eta pasiboa	2023	2024
A) Ondare garbia	1.764.968	1.786.223
I. Jarritako ondarea	1.731.329	1.731.329
II. Sortutako ondarea	33.639	54.894
1. Aurreko ekitaldietako emaitzak	33.639	54.894
Ondarea	39.101	54.894
Lagapenean emandako ondarea	-5.462	-
C) Pasibo arrunta	180.720	208.879
IV. Hartzekodunak eta ordainkizun dauden beste kontu batzuk	180.720	208.879
1. Kudeaketa-eragiketengatik hartzekodunak	4.422	1.421
3. Administrazio publikoak	176.297	207.458
Ogasun Publikoa, PFEZagatik hartzekodun	38.586	39.605
Ogasun Publikoa, kreditu-itzulketarengatik	122.526	151.909
Gizarte Segurantza hartzekodun	15.185	15.944
Ondare garbia eta pasiboa, guztira	1.945.687	1.995.102

1.5 2024KO EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA

	2023	2024
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	1.073.800	1.118.300
a) Ekitaldikoak	1.073.800	1.118.300
a.2) Transferentziak	1.073.800	1.118.300
Nafarroako Gobernuaren kapital-transferentziak	40.240	50.240
Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntak	1.033.560	1.068.060
A) Kudeaketa arrunteko diru-sarrerak, guztira	1.073.800	1.118.300
8.Langile gastuak	-705.488	-714.628
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	-553.004	-572.196
Arartekoaren soldatak eta lansariak	-75.339	-77.585
Behin-behineko langileen soldatak eta lansariak	-337.852	-347.922
Funtzionarioen soldatak eta lansariak	-119.657	-146.690
Kontratupeko langileen soldatak eta lansariak	-20.156	-
b) Gizarte-zamak	-152.484	-142.432
Enpresaren kargura dagoen Gizarte Segurantza	-152.484	-142.432
9.Egindako transferentziak eta emandako dirulaguntzak	-32.585	-37.275
11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	-187.758	-164.529
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	-187.758	-164.529
12. Ibilgetuaren amortizazioa	-26.068	-28.484
B). Kudeaketa arrunteko gastuak, guztira (8+9+11+12)	-951.900	-944.916
I. Kudeaketa arruntaren emaitza (aurrezkia edo desaurrezkia) (A+B)	121.900	173.384
13. Ibilgetu ez-finantzarioaren eta salgai dauden aktiboen balio-galera eta haien besterentzearen emaitzak	-	-5.682
b) Bajak eta besterentzeak	-	-5.682
14. Arruntak ez diren beste partida batzuk	-	-
II. Eragiketa ez-finantzarioen emaitza (I+13+14)	121.900	167.702
15. Diru-sarrera finantzarioak	-	-
16. Gastu finantzarioak	-	-
III. Finantza-eragiketen emaitza (15+16)	-	-
IV. Ekitaldiko emaitza garbia (aurrezkia edo desaurrezkia) (II+III)	121.900	167.702

1.6 ONDARE GARBIA IZANDAKO ALDAKETEN EGOERA-ORRIA, 2024

	Jarritako ondarea	Sortutako ondarea	Guztira
Ondare garbia, 2023ko ekitaldiaren bukaeran	1.731.329	33.639	1.764.968
Kontabilitate-irizpideetan izandako aldaketengatik eta zuzenketengatik egindako doikuntzak	-	-	-
2024ko ekitaldiaren hasierako ondare garbi doitua	1.731.329	33.639	1.764.968
Ondare garbian izandako aldaketak, 2024ko ekitaldikoak	-	21.255	21.255
Ekitaldian aitortutako diru-sarrerak eta gastuak	-	173.164	173.164
Jabea den entitatearekin egindako eragiketak	-	-	-
Ondare garbian izandako beste aldaqueta batzuk	-	-151.909	-151.909
Ondare garbia, 2023ko ekitaldiaren bukaeran	1.731.329	54.894	1.786.223

1.7 2024KO DIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA

	2023	2024
I. KUDEAKETA-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK		
A) Kobrantzak:	1.073.800	1.118.300
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	1.073.800	1.118.300
5. Kobratutako interesak eta dibidenduak	-	-
6. Beste kobrantza batzuk	-	-
B) Ordainketak:	930.782	1.038.294
7. Langileria-gastuak	705.488	714.628
8. Egindako transferentziak eta emandako dirulaguntzak	32.585	37.275
10. Beste kudeaketa-gastu batzuk	187.717	165.642
13. Beste ordainketa batzuk	4.992	120.748
Flujos netos de efectivo por actividades de gestión (+A-B)	143.018	80.006
II. INBERTSIO-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK		
C) Kobrantzak:	-	-
3. Inbertsio-jardueretako beste kobrantza batzuk	-	-
D) Ordainketak:	25.114	51.847
4. Inbertsio errealeen erosketa	25.114	51.847
III. Inbertsio-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+C-D)	-25.114	-51.847
VI. ESKUDIRUAREN ETA HAREN BALIOKIDE DIREN AKTIBO LIKIDOEN HANDITZE/GUTXITZE GARBIA (I+II+III+IV+V)	117.904	28.159
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak, ekitaldiaren hasieran	62.815	180.720
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak, ekitaldiaren bukaeran	180.720	208.879

2. GEHIGARRIA. NAFARROAKO ARARTEKOA

Nafarroako Arartekoa Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria da, xedetzat duena Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoak babesturiko eskubide eta askatasunen babes-maila defendatu eta hobetzea. Haren eginkizun nagusia da herritarrak babestea administrazioaren balizko abusu eta akatsen aurrean.

Urriaren 27ko 7/2010 Lege Organikoak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoa Erreformatzekoak, estatutu-mailako erakundearen kategoriara jasotzen du Nafarroako Arartekoa.

Arartekoa Nafarroako Parlamentuak hautatua eta izendatua da, eta egiten duen kudeaketa-lanarengatik urtero Nafarroako Parlamentuaren aurrean erantzuten du. Eginkizun dituenak gauzatzeko behar dituen aholkulariak eta konfiantzazko langileak askatasunez hautatzen eta kargutik kentzen ditu. Egun kargu hori betetzen duen pertsonak 2022ko martxoaren 23an hartu zuen postuaren jabetza, sei urterako.

2021ean, Nafarroako Arartekoaren eskumenak, eginkizunak eta ahalak areagotu egin dira: Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren 20. artikulua aldaketa, erakundearen eskumenak handitu, bitartekotza eginkizunak esleitu.

Nafarroako Arartekoa, kontabilitaterako, kontu-hartzailetzarako, gastu-baimenerako, kontratazioarako eta ondasun eta eskubideen eskuratzeko, Nafarroako Parlamentuaren araubide beraren mende dago. Haren aurrekontu-proiektua Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartuta dago, eta haren kontuak Nafarroako kontu orokorren parte dira.

3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Honako hauek osatzen dute, funtsean, Nafarroako Arartekoari 2024an aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

Estatuko araudia

- 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa.
- EHA/1037/2010 Agindua, apirilaren 13koa, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten duena.

Foru araudia

- 4/2000 Foru Legea, uztailaren 3koa, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzkoa.
- 14/2004 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ondareari buruzkoa.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- 2/2024 Foru Legea, martxoaren 13koa, Nafarroako 2024rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua, Parlamentuko Erregelamendu Batzordeak 1991ko martxoaren 20an onetsia.
- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Erregelamendua, Nafarroako Parlamentuak 2005eko azaroaren 23an onetsia.
- Barne-arauak, Arartekoaren erakundean kontu-hartze zeregina aurrera eramateari buruzkoak, 2007ko maiatzaren 2koak

4. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, Ganbera honen ustez fiskalizazio-txosten honen hartzaileentzat eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitezkeenak.

4.1 EGINDAKO JARDUNA

Arartekoaren urteko txostenaren arabera, honako hauek dira 2024an zehar erakundeak egindako jardueraren datu nagusiak:

- 4.725 jarduketa egin dira, aurreko ekitaldian baino ehuneko 32 gehiago, honela zehaztuta:

	Kopurua	Ehunekoa
herritarren arretarako bulegoan artatutako kontsultak	2.751	58
Kexak	1.663	35
Gizarte-entitateekiko harremanak/bilerak	35	1
Ofiziozko egintzak	30	1
Bitartekaritza-espeditenteak.	22	0
Gardentasunaren Kontseiluaren saioak/ponentziak	20	0
Bilerak	16	0
Hobekuntza proposamenak	10	0
Beste batzuk	178	4
Lehentasunezko jarduketak, guztira	4.725	100

- 2024an 1.416 kexa aurkeztu dira, eta guztira 1.663 kexa kudeatu dira, honako koadroan azaldu bezala:

	Kexa-kopurua	Ehunekoa
Ekitaldiko kexak	1.416	85
Aurreko ekitaldiko kexa ebatzi gabeak	210	13
Aurreko ekitaldien jarraipena	14	1
Berriekiak, aurreko ekitaldietakoak	23	1
Kudeatutako kexen kopurua	1.663	100

- 2024an aurkeztutako kexak honako administrazioei buruzkoak ziren:

	Kexa-kopurua	Ehunekoa
Jomuga-entitatea		
Foru Komunitateko Administrazioa	787	56
Toki entitateak	311	22
Estatuko administrazioa	173	12
Beste batzuk	145	10
Guztira	1.416	100

- Kexen ondorioz, 415 ebazpen jaulki dira, ¹eta haietan biltzen dira 246 gomendio, 180 iradokizun eta legezko betebeharren 161 gogorarazpen.

4.2 AURREKONTU-LIKIDAZIOA

- Arartekoaren hasierako aurrekontuak 1.118.400 euroko gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspenak jasotzen zituen; zenbateko hori bat dator behin betiko aurreikuspenekin.

- Aitortutako betebeharrak 972.213 eurokoak izan dira, eta ehuneko 96ko betetze-maila izan dute. 2023an, betebeharrak 951.274 eurokoak izan ziren.

- Aitortutako eskubideek 1.118.300 euro egin dute, eta betetze-maila ehuneko 100ekoa izan da. Diru-sarrera guztiak Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioetik heldu dira; horietatik,

¹ Arartekoak, ikerketaren ondoren, salatzailearen jarrera osoki edo alde baietsi du.

1.068.060 euro funtzionamendu-gastuak finantzatzera bideratutako transferentzia arruntak dira, eta 50.240 euro, berriz, inbertsio-gastuetara bideratutako transferentziak.

- Arartekoak 2024an gastatutakoaren xedeak eta finantzaketa-iturriak, 100 euro bakoitzeko:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantzaketa-iturria	Zenbatekoa
Langileria	74	Transferentzien bitartezko diru-sarrerak	100
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	17		
Transferentzia arruntak	4		
Inbertsioak	5		
	100		100

- Parlamentuak, arau indardunari jarraituz, 151.909 milioi euro itzuliko dizkio Foru Ogasunari, honela zehaztuta:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Diru-sarrerak, guztira	1.118.300
Gastuak, guztira	972.213
Aurrekontu-superabita (aurrekontu-emaiza doitua)	146.087
Gizarte Segurantzaren ordainketa eskuordetua	5.822
Foru Ogasunari itzuli beharrekoa, guztira ²	151.909

4.3 LANGILERIA-GASTUAK

Arartekoaren langile-gastuak 720.450 eurokoak izan ziren 2024an, 2023an baino ehuneko hamar gehiago, jarraian zehazten denez:

Kontzeptua	ABG, 2023	ABG, 2024	2023/2024 aldea (%)
Arartekoaren ordainsaria	75.339	77.585	3
Behin-behineko langileen lansariak	337.852	347.922	3
Funtzionarioen lansariak, guztira	119.657	146.690	23
Hautetsien Aldi baterako kontratua duten langileak	20.156	0	-100
Gizarte Segurantza	152.484	148.254	-3
Guztira	705.488	720.450	2

Aldaketak berrikusi eta aztertu ditugu, eta egiaztatu dugu behar bezala justifikatuta daudela.

Plantilla organikoa

Arartekoaren 2024rako plantilla organikoa abenduaren 20an onetsi zen, Parlamentukoarekin batera. 2024ko abenduaren 6an argitaratu zen NPAOn, 2023ko abenduaren 31ko funtzionario-zerrendarekin batera.

Honako hauek dira lanpostuak, plantilla organikoaren arabera:

Sailkapena	2024/12/31
Behin-behineko langileak (aholkulari teknikoak eta kabinetea)	6
Funtzionarioak	3
Guztira	9

2024abenduaren 31n hamar pertsona ziren, Arartekoa barne, erakundean lan egiten zutenak. Ez dauka behin-behineko kontrataturiko langilerik.

² Gizarte Segurantzaren ordainketa eskuordetua, baja batetik eratorria, aurrekontuaz besteko diru-sarrera gisa kontabilizatu da, eta horrek eragin du aurrekontu-gauzatzearen eta itzuli beharreko funtsen arteko aldea.

4.4. ONDASUN ETA ZERBITZUETAKO GASTU ARRUNTAK

Parlamentuak ondasun eta zerbitzuetan eginiko gastu arruntak 164.529 milioi eurokoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 17 egiten du horrek. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 100ekoa izan zen.

Honako gastu-lagin hau aztertu dugu:

2024ko aurrekontuko gastuen aurrekontu-partida	
Eraikinen konpontze- eta mantentze-lanak	20.588
Garbiketa eta txukuntasuneko zerbitzuak	19.118
Egindako beste lan batzuk	26.184
Hornidurak	15.942
Guztira	81.832

Egindako lanaren konklusioa da gastuak, oro har, zuzen onetsita, kontabilizatuta eta justifikatuta daudela, eta araudian ezarritako epean ordaindu direla.

4.5. KONTRATAZIOA

Honako kontratu hauen adjudikatzeko-prozedura eta betetzea berrikusi ditugu:

Kontratua	Esleipen-prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Lizitatzailer kop.	Esleipenaren zenbatekoa (BEZik gabe)
Itzulpen-zerbitzua	Sinplifikatua	52.000	5	³
Egoitzaren garbiketa-zerbitzua	Sinplifikatua	57.600	8	47.400
Erregistro elektronikoa ezarri eta abian jartzea	Munta txikikoa	15.000	2	14.900

Oro har, aipatu kontratuen espedienteak Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen (aurrerantzean, KPFL) eta Parlamentuaren Erregelamendu Ekonomiko-finantzarioaren arabera izapidetu dira. Haietatik datozen gastuak onetsita, fiskalizatuta, justifikatuta eta zuzen kontabilizatuta daude, eta araudian ezarritako epeetan ordaindu dira. Halere, honako hau aipatu behar dugu:

Garbiketa- eta itzulpen-zerbitzuen kontratuen balio zenbatetsia zehazteko, aintzat hartu dira kontratu horietarako aurreikusitako gehienezko iraupenak, luzapenak barne –hiru eta bi urteko iraupenak aurreikusi dira, hurrenez hurren–. Hortik ateratako balio zenbatetsiak ahalbidetzen du kontratuok prozedura sinplifikatu bidez esleitzea. Egindako estimazioa zuzena da eta kontratu horiek aipatu prozedurari jarraikiz esleitu ziren. Tramitazioan zortzi eta bost eskaintza eskatu ziren, hurrenez hurren, lehia bermatze aldera.

Horri dagokionez, aztertutako prestazioen izaera iraunkorra dela-eta, azter liteke kontratuak legezko gehienezko iraupenarekin lizitatzearen komenigarritasuna (bost urte, luzapenak barne); hala, balio zenbatetsi berriaren arabera, prozedura irekia edo murriztua baliatuko litzateke.⁴

Egiaztatu dugu erregistro elektronikoa ezarri eta abian jartzeari buruzko kontratuan kontratuaren zenbateko osoa ordaindu dela kasuko prestazioa amaitu gabe. Baldintza-orrietan ez zen inguruabar hori aurreikusten.

³ Baldintza-orrian adierazitako gehienezko zenbatekoa hitzeko 0,09 eurokoa bazen ere, hitzeko 0,065 euroan esleitu da.

⁴ Paragrafo hau aurkeztutako alegazioaren arabera aldatu da.

Egindako azterlana kontuan hartuta, hauxe *gomendatzen* dugu:

- Aztertzea, prestazioaren izaera aintzat hartuta, prozedura irekia edo murriztua baliatzeko aukera, zerbitzua emateko epe luzeagoa⁵ ahalbidetzen baitute.
- *Kontratuaren prezioa prestazioa amaitutakoan ordaintzea.*

4.6 TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIENGATIKO DIRU-SARRERAK

Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak, hurrenez hurren, 1.068.060 eta 50.240 eurokoak izan ziren, diru-sarrera guztien ehuneko 100, hain zuzen ere. Haien betetze-maila ehuneko 100ekoa izan zen. Honako koadro honetan jaso da 2023ko ekitaldiko diru-sarrerekiko konparazioa:

Kontzeptua	AEG, 2023	AEG, 2024	Aldea (%) 2024/2023
Transferentzia arruntak	1.033.560	1.068.060	3
Kapital-transferentziak	40.240	50.240	25

Egiaztatu dugu kontabilizatutako informazioa koherentea dela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan jasota dagoenarekin.

⁵ Gomendio hau alegazioaren arabera aldatu da

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Presidente jauna:

2025eko ekainaren 25ean, 2024ko ekitaldiko Arartekoaren kontu orokorreko buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostena onartzen duen Kontuen Ganberako lehendakariaren Ebazpena jaso du erakunde honek.

Ebazpenari atxikirik, aipatu behin-behineko txostena jaso genuen, aztertu eta, kasua bada, alegazioak aurkezteko. Horretarako epea ekainaren 30ean amaitzen da.

Erakunde honek eskertzen du eginiko fiskalizazio-lana, oso baliagarria baita bere jarduna gauzatzeko.

Atxikitako txostena aztertutik, erakundeak uste du bidezkoa dela haren edukari buruzko alegazio bakar bat aurkeztea, zehazki 4.5 apartatuan bi kontratari buruz jasotakoa dela-eta:

“Garbiketa- eta itzulpen-zerbitzuen kontratuen balio zenbatetsia zehazteko, aintzat hartu dira kontratu horietarako aurreikusitako gehienezko iraupenak, luzapenak barne –hiru eta bi urteko iraupenak aurreikusi dira, hurrenez hurren–. Hortik ateratako balio zenbatetsiak ahalbidetzen du kontratuok prozedura sinplifikatu bidez esleitzea. Egindako estimazioa zuzena da, eta kontratu horiek aipatu prozedurari jarraikiz esleitu ziren. Tramitazioan zortzi eta bost eskaintza eskatu ziren, hurrenez hurren, lehia bermatze aldera.

Hala ere, kontuan hartuta kontratu horiek Arartekoaren beharrian iraunkorreko buruzkoak direla, eta kontratu horien iraupena legeko gehienezkoa izanez gero (bost urte, luzapenak barne) aterako litzatekeen balio zenbatetsiak prozedura irekia edo murriztua baliatzea eskatuko lukeela, uste dugu lehia hobeto bermatuko litzatekeela kontratuak aipatu prozeduretakoren baten bidez esleitu balira”.

Txostenean adierazitakoaren harira, esan behar da Kontratu publikoei buruzko Foru Legearen 71.2 artikulua ezartzen duela kontratazio-organismoak prozedura irekia edo murriztua erabiltzen ahalko duela, nahi duenaren arabera. Horren ondotik, arauak xedatzen du gainerako prozedurak salbuespenekoak direla, eta foru lege horretan baimentzen diren kasuetan baizik ezin daitezkeela erabili, arrazoitutik.

Prozedura sinplifikatuari dagokionez –hori baita txostenean aipatzen diren bi kontratuei aplikatu zaien–, foru legeak baimentzen du hura baliatzea 60.000 euro baino gutxiagoko balio zenbatetsia duten hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan (80.1 artikulua).

Kasu horretan, kontratuaren zenbatekoa handia ez delako, foru legeak ahalbidetzen du prozedura arin eta errazago bat baliatzea, kontratazioaren arloan bete beharreko printzipioak aintza hartuta –lehia-printzipioarekin batera, beste batzuk ere aplikatu behar dira, hala nola eraginkortasun- eta efizientzia-printzipioak–, horiek baitira administrazioaren jardura zuzentzen dutenak eta Kontratu Publikoen Foru Legearen 2. artikuluan aipatzen direnak.

Kontratuen balio zenbatetsiaren kalkulua dela-eta, horrek ahalbidetuko baitu zenbatekoagatik prozedura erraztuaren balizko erabilera, 42. artikuluan xedatzen da kontuan hartu behar direla, besteak beste, *“lizitazioaren zenbatekoa eta (...) kontratuaren balizko luzapenak”*.

Halaber, foru lege beraren 45. artikulua honako hau ezartzen du kontratuen iraupenari eta balizko luzapenei buruz:

“1. Kontratu publikoen iraupena ezartzeko, kontuan hartuko dira honakoak: prestazioen izaera, finantzaketaren ezaugarriak, eta horien ematea aldizka norgehiagokan jarri beharra.

Kontratuan luzapen bat edo gehiago aurreikusten ahalko dira, baldin eta haren ezaugarriak ez badira aldatzen luzapenen iraunaldian, eta adjudikaziorako norgehiagoka egina bada kontratuaren gehieneko iraupena kontuan hartuta, luzapenak barne.

(...)

2. Hornidura- eta zerbitzu-kontratuen gehieneko iraupena bost urtekoa izanen da, luzapen guztiak barne, non ez den epe luzeagoa behar, salbuespeneko arrazoiak tartean direlako, prestazioaren xedeari dagozkionak eta berariaz justifikatu beharrekoak”.

Ulertzen dugunez, kontratuen iraupenaren alde aurretiko zehaztapenean (hasierako iraupena eta balizko luzapena edo luzapenak), legeak ezarritako gehieneko mugen artean, kontratazio-organismoak badu nolabaiteko diskrezionalitate-tartea, kasuz kasu baliatzekoa, aintzat hartuta zerbitzu publikoaren beharrianak eta, bereziki, legeak xedatu bezala, kontratua osatzen duten prestazio motak, haren eskakizun finantzarioak, eta ez bakarrik lehia, baizik eta haren aldizkakotasuna bermatzeko beharra.

Berezkoak dituen mugen barruan iraupena zehazteko ahalmen hori baliaturik, onargarria eta arrazoizkoa da lege ezarritakoak diren eta kontratuen balorazio edo muntari dagozkion kontratazio-prozedura desberdinen erabilera, prozedura erraztua barne; izan ere, azken prozedura hori baliatzeko lege ezarritako kasuan geundeko, eta prozedura hori egokia izanen litzateke jokoan dauden printzipio guztiak zaintzeko, lehia-printzipioa barne.

Gure ustez, aurreko arrazoibidea aplikatu daiteke, baita ere, erakundearen beharrian iraunkorrak hornitzeari dagokionez, eta, halakoetan, ez dela beharrezkoa lege ezarritako gehieneko epera jotzea, ez eta epe horren arabera kalkulaturako balorazio ekonomikoari dagokion prozedura bat aplikatu behar ere.

Horri dagokionez, uste dugu posible dela, eta ez dela ezohikoa, oro har beharrian iraunkorra izanik (garbiketa edo itzulpena, kasu honetan), horniduraren eskakizunak, adosten diren prestazio zehatzak, haien maiztasuna edota kontratuaren alderdi finantzarioak aldatzen joatea edo gorabeherak izatea, eta horrek egokitzapen bat eskatzea denboran zehar. Eta, hortik abiatuta, egokia eta onargarria izan daiteke gehieneko iraupenarekin bat ez datorren iraupen edo kontratu-lotura laburrago bat aukeratzea, hala hobeto babesten badira jokoan dauden printzipioak eta, azken finean, interes publikoa.

Bestalde, arrazoizkoa da –eta hala xedatzen du jada aipatu den 45.1 artikulua, kontratuen iraupena gehieneko tartetan ezartzeko irizpideak zehazten dituenak– aldizkako lehia ahalbidetu edo sustatzea (eta, horren ondorioz, pertsona edo enpresa berriek lizitazioan parte hartzeko aukera izatea), eta arauan aurreikusitako gehieneko epeak ez agortzea lagungarria da xede horretarako. Aldizkako lehia hori, beharbada, berezkoa da beharrian iraunkorrak edota denboran asko luzatzen direnak hornitu behar diren kasuetan.

Finean, ezin dugu ukatu, lehia-printzipioaren ikuspegi soiletik, prozedura irekia edo murriztua lagungarrienak direnik, a priori, eta, ildo horretatik, ulertzen dugu txostenean arrazoiturikoa. Baina uste dugu, babestu beharreko interes eta printzipio multzo osoa aintzat hartuta, erakundearen beha-

rrizanak iraunkorrak edo denboran asko luzatzen direnak izanda ere, egokia izan daitekeela kontatuen iraupenari eta balorazio zehatzari eta zerbitzuak eskatzen duen hornidura-beharrizanei begira lege ezarritako beste prozedura batzuetara jotzea.

Eskerrak berriro eginiko fiskalizazio lanagatik, eta beharrezkoa den edozein argibide emateko prest gaituzu, behin betiko txostenaren zain.

Adeitasunez,

Nafarroako Arartekoa: Patxi Vera Donazar

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMATEN
DIEN ERANTZUNA**

Arartekoak aurkeztutako alegazioa jaso eta azterturik, txostena behin betikotzat jotzen da, bere testuan eginiko aldaketekin.

Iruñean, 2025eko uztailaren 3an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

